

[Txotx denboraldia](#)

Astigartarren %83,5ak ez luke 'Sagardotegi turismoa' ezabatuko

Kronika - Erredakzioa 2020-01-18 00:00



Txotx denboraldian jende asko hurbiltzen da bailarako sagardotegietara eta herrietara.

Sagardotegi garaia buruzko herri ikerketa egin zuen Gizakerrek apirilean, Udalak eskatuta, eta hainbat datu bildu ziren etorkizunari begira. Astigartarren %61,3ak sagardotegi garaiko jendetzari esker Astigarragak ingurukoek baino maila ekonomiko hobea mantentzen duela adierazi zuten herritarrek.

Astigarragako Udalak Gizaker Inkestak taldeari sagardotegi garaia buruzko herri ikerketa eskatu zion, eta 2019an argitaratu ziren emaitzak. Emaitzen txostena apirilean argitaratu zuten, eta Udaleko www.astigarraga.eus webgunean ikusi daiteke. Etorkizunari begira, neurriak hartu behar badira zein neurri hartu jakiteko balioko du.

Bertan datu asko eta interesgarriak jaso eta biltzen dira eta aipagarrienetakoa da 'Sagardotegi-turismoa' guztiz ezabatu ahal izango balute, astigartarrek ezezko borobila emango luketeela. Herritarren %83,5ak ez luke guztiz ezabatuko sagardo turismoa, %11,4ak ezabatuko luke eta %5ak ez daki edo ez du erantzuten.

Astigarragarekin satisfakzio handia, bizitzeko hiri bezala

Astigarragarekin duten satisfakzio maila, bizitzeko hiri bezala, oso altua da. 0 eta 10en artean satisfakzio maila 8,16 da. Eta arazo nagusiez galdetzen denean, garraio publikoaren falta da lehena, %22,6arekin. Txotx garaia lotuta kanpoko jende gehiegi etortzen dela %12,7ak esan du, bigarren arazo nagusia hori izanik; eta DBH falta dela da hirugarrena, %11,4arekin.

«Sagardotegi-garaia sortzen duen jende-etorria positiboa da Astigarragarako, nahiz eta eragozpen batzuk izan» esaldiak 7,20ko balorazioa du, 0-10 bitarteko eskala batean, 10 erabat ados izanda. Beraz, astigartarren ustez positiboa da txotx garaia.

Ilido horri tiraka %61,3ak dio sagardotegi garaiko jendetzari esker, Astigarragak ingurukoek baino maila ekonomiko hobea mantentzen duela. %21,3a ezezkoan dago, eta %17,4ak ez daki edo ez du erantzuten.

%51rentzat positiboa negatiboa baino, eta %35arentzat alderantziz

Sagardotegi garaian biltzen den jendetzaren alderdi positiboa negatiboa baino handiagoa dela uste dutenak %51 dira, eta negatiboa positiboa baino handiagoa dela diotenak, %34,8a.

Alderdi negatiboan artean alkohol gehiegikeria eta bandalismoa dira gehien nabarmentzen diotenak jendeak, %22arekin, bai bata eta bai bestea. Ondoren

Kronika.eus

Dobera Euskara Elkartea

Larramendi kalea 11, Hernani

Tel.: 943 33 08 99 · 688 660 714 · kronika[ABILDUA]kronika.eus



Codesyntaxek garatua



[HONI BURUZ](#)

[LEGE OHARRA](#)

[PUBLIZITATEA](#)

[ARAUAK](#)

[HARREMANETARAKO](#)

[RSS](#)



Gertuko informazioa, euskaraz

[AIARALDEA](#) [AIKOR](#) [ANBOTO](#) [ATARIA](#) [BALEIKE](#) [AIURRI](#) [ERRAN](#) [EUSKALERRIA IRRATIA](#) [GOIENA](#) [GUAIXE](#) [HIRUKA](#)
[KARKARA](#) [MAXIXATZEN](#) [PLAENTXIA](#) [ALEA](#) [28 KANALA](#) [ANTXETA](#) [BARREN](#) [ERLO TELEBISTA](#) [GEURIA](#) [GOIERRI TELEBISTA](#)
[KRONIKA](#) [MAILOPE](#) [NOAUA](#) [DEUSTUALDEA PREST](#) [TXINTXARRI](#) [URIOLA](#) [UZTARRIA](#) [AMEZTI](#) [OIZMENDI TELEBISTA](#)

[Gurean](#) [Plazanbazan](#) [Ttap](#)

[Tokikom publizitatea](#)